



## ONDARROAKO EMAKUMEEN UDAL BERDINTASUN KONTSEILUA

### BILERA AGIRIA

<b>Eguna</b>	2011ko urriaren 5a
<b>Ordua</b>	19:00etan
<b>Lekua</b>	Udal batzar gela 1

### BERTARATUAK

Uxu- Ondarroako emakumeen Taldea	Rakel Aspiazu
Boga-Boga emakume elkarte	Begoña Atxurra
	Karmen Lertxundi
Minbiziaren aurkako elkarte	Marije Ibarloza
	Gloria Prendes
Andrabanda Feminista	M <sup>a</sup> Cruz Lekunberri
	Eider Bilbao
Allarte	Ainara Aramaio
Indepndientea	Antigua Beristain
Indepndientea	Kristina Arantzamendi
Indepndientea	Karmentxu Ibaibarriaga
Bildu	Saioa Amuriza
	Irati Markes
EAJ	M <sup>a</sup> Dolores Etxano
Kontseiluburua	Rakel Elu
Berdintasun Teknikaria	Rosa Baltar

### GAI ORDENA

1. Aurreko aktaren onarpena.
2. Beldur barik lehiaketa eta 2011ko azaroko kanpaina.
3. Lan batzordeak martxan.
4. Eskari-galderak.

#### **1. Aurreko aktaren onarpena.**

Aho batez onartzen da. Jarraian, Kontseiluan parte hartzeko egin diren gonbidapenen berri ematen da: sare-konpontzaileak, Marimendi, 7 emakume en movimiento, LAB, eta abar.



## 2. Beldur barik lehiaketa eta 2011ko azaroko kanpaina.

### A. BELDURRIK BARIK.

Ondarroako beldurrik barik lehiaketa zabaltzeko egin den foiletoa banatzen da. Adostu zen moduan saria 3 kategoria ezberdinetan banatu da. Lehengo kategoriari dagokionez, alegia, 12-16 urte bitarteko sariari dagokionez, talde lana banakakoa baino hobetsiko dela argitzen da.

Epaimahaia era honetan osatzea erabakitzen da:

- Emakumeen kontseiluaren ordezkariak: Rakel Aspiazu eta Irati Markes
- 7 emakume en movimiento elkarteak.
- Herriko artistak edo arte grafikoan adituak: Nekane Akarregi eta Bittore Laka
- Hezkuntza arloko zinegotzia
- Berdintasun saileko zinegotzia.

Epaimahaia azaroaren 14an ala 15ean elkartuko da 19.00ak aldera

### B. AZAROKO EGITARAUA-proposamena:

Hurrengo egitaraua osatzea erabakitzen da:

- AZAROAREN bigarren hamabostaldian, Kofradia zaharrea: ERAKUSKETA: Indarkeria matxisten aurkako erakusketa globalak: "patriarkaturik gabe denok jabe". Latinoamerikan, Estatuan eta Euskal Herrian egindako sentsibilizazio eta salaketa kanpainen gainekoa.
- Dokumentala: "Martxan" Indarkeria matxisten aurrean feministak martxan: El Salvador, Guatemala eta Euskal Herriko 7 emakume feministen ahotsen bitartez munduko toki guztietako emakumeek aurre egiten dituzten indarkeria matxista desberdinen inguruko gogoeta. Hizlaria zehaztu barik.
- Azaroak 29, Kofradia zaharrea: "Estu Pilulak" Antzerki-foruma (Ongiz). Maskulinitasun sexistaren eraikuntzaz eta honek dituen ondorioak emakumeengan eta gizonezkoengan aztergai. Gizon taldearen inplikazioa bilatuko da, eta beraiekin adostuko da gizonentzako bakarrik zuzenduta izatea ala irekia egitea.
- **AZAROAK 25: EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNEAN:**
  - 13.00etan. Kontzentrazioa Alamedan.
  - 17.30ean, kofradia zaharrea. Beldurrik barik EKITALDIA. –Finalisten erakusketa eta sari banaketa.
  - 18:00etan MANIFESTAZIOA Kofradiatik Alamedara.  
EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA GEHIAGORIK EZ!  
Andrabanda feministak horretarako ekarpen berezia prestatzen ari dela azaltzen du.



- Uxu-Ondarroako emakumeen taldeak 22:00ak aldera Antzerkia antolatuko du Kafe antzokian.

Azaroaren 25ean eta egun osoan zehar, puntu lila jarriko da Alamedan. Horrezaz gain, pasa den urteko puntu liladun txapak eta kartelak banatuko dira.

Egitaraua zabaltzeko euskarri grafikoak sortuko dira eta Talde/elkarteetatik antolatuko diren ekintzak/jarduerak sartzeko aukera eskaintzen da. Horretarako hurrengo batzarrerako informazio zehatza ekarri behar da.

Bukatzeko, aurtan, Donostian izango den BELDUR BARIK TOPAKETAn, Jabekuntza eskoletako banda feministek parte hartuko dutela informatzen da.

### 3. Lan batzordeak martxan.

Hurrengo lan batzordeak martxan jartzea erabakitzen da:

- Batetik, dagoeneko martxan dagoen Berdintasun planaren jarraipen batzordeak jarraipena izango du. Lan talde hori urte hasieran elkartu zen, eta nahiz eta ordutik beste batzarririk ez egin, beharrezkotzat jotzen da mantentzea. Gainera, hurrengo astetan mahai politikoaren eraketa egingo dela aurreikusten da. Lan batzorde honen partaide dira: Saioa Amuriza, Kristina Arantzamendi, M<sup>a</sup> Dolores Etxano eta Alazne Artetxe.
- Bestetik, "emakumeen etxea" edota emakumeen elkar-lanerako topagunearen proposamena osatzeko lan batzorde bat eratuko da. Prest agertu dira honetan parte hartzeko: Rakel Aspiazua, Andrabanda eta Irati Markes.
- Azkenik, beste lan batzorde bat eratzea proposatzen da, Ondarroako emakumeen eta feminismoaren azterlanaren gaineko ikerketaren aurkezpena egiteko, eta horrekin batera, bilduma bat egitea. Hau da, aztarnen lanarekin batera, hurrengoko azterlanak aurkeztea eta argitaratzea proposatzen da: "Ondarroako emakumeak herriko partaidetza politikoan eta sozialean<sup>1</sup>" 2006-(Ainara Riveras, Miren Arbelaitz eta Andere Ormazabalen azterlana) eta "Ondarroako emakumeek herriko bizitza ekonomikoari egindako ekarpena"- "Itsasotik bizi" Gotzon Iparragirreren azterlana (2004an egindako esleipena). Egileekin kontaktuan jarriko gara asmo honen berri emateko. Bereziki azkeneko azterlanari dagokionez, gogorarazten da, azkeneko txostena kontseiluan eztabaidatu egin zela eta argitaratu baino lehen moldaketa behar zuela. Lan batzorde horretan parte hartzeko prest agertu da: M<sup>a</sup> Dolores Etxano.

### 4. Eskari-galderak.

---

<sup>1</sup> Emakumeen asoziazionismoa eta mugimendu feministaren bilakaera eta hauen eragina emakumeen boteretzean (1978-2006).



- a. AUZO BATZARREN gaineko informazioa ematen da, izan ere kontseiluko helburuak eta proiektuak bertan txertatzeko ezinbesteko aukera izango da:
- Urriak 10 Artabide, Guzur Etxean 19:00etan.
  - Urriak 11 Egidazu kaia, Itsasaurre, Antiguako Ama, Zubiaurre Anaiak, Guzur Etxean 19:00etan.
  - Urriak 11 San Ignazio, Harategi Ikastola, Artibai Kofradia Zaharra 19:00etan.
  - Urriak 12 Gorozika Gorozika 19:00etan.
  - Urriak 12 Erretereria Erretereria 19:00etan.
  - Urriak 13 Sabin Arana, Magdalena, San Juan txurru, Txorierreka Kofradia Zaharra 19:00etan.
  - Urriak 17 Erribera, Nasa, Kantoipe, Kafeatze Kofradia Zaharra 19:00etan
  - Urriak 18 Iparkale, Pixape, Txomin Agirre, Iparragirre Kofradia Zaharra 19:00etan.
  - Urriak 19 Kaleandi, Kamiñalde Kofradia Zaharra 19:00etan.
  - Urriak 20 Iturribarri, Ibaiondo, Kamiñazpi Alkoholiko Anonimoen lokalean 19:00etan.
- b. HistoriaZale elkarteak aurtengo urtekarian gaur egungo emakumeen mugimendua Ondarroan lantzeko asmoa du. Horregatik elkartearen informazioa beharko dute: elkartearen helburuak, antolaketa mota, ekintzen gaineko informazioa eta argazki bat.
- c. Jabekuntza eskolako egitaraua banatu egiten da, eta horrekin batera Nahita aldizkaria, bertan Silvia Plaumbori egindako elkarrizketa agertzen baita.
- d. EHGAM-ek azaroaren 26an, Ondarroan, sexu askapenerako jaia antolatuko du.
- e. Urriaren 6an, Leire Bilbaok "scanner" poema liburua aurkeztuko duela, Donostian, jakinarazten da.
- f. Azaroak 3 eta 4:
- i. Genero indarkeria eta komunikabideak jardunaldia, Bilbon. Antolatzailea: Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko zuzendaritza.
  - ii. Nazioarteko Mintegia: *Pekindik aurrera: benetako berdintasunerako urratsak*. CIINPIK antolatua (Berdintasun Politiken Nazioarteko Berrikuntza Zentroa). Informazioa posta elektronikoz bidaliko da.

Bilera 20.40ean bukatutzat ematen da eta hurrengoaren data zehazten da: azaroak 2, 19.00etan.

Ondarroan, 2011ko urriaren 14an.

Izp.: Rosa Baltar Cabo.  
Berdintasun Teknikaria